

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



GURE KIROL APLIKAZIOA

2024-03-01 / 807 ZENBAKIA / 20. URTEA
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM

ANTOLATZERA
TOKIKOM



ERREKURTEAK



LABORAL



deskargatu orain!

Matx: kirolzaleen, kirolarien eta kluben aplikazioa



Andoaingo eta Urrietako kirol klubentzat aukera ugari eskaintzen dituen aplikazioa jaio da, TOKIKOMen eskutik. Aiurri bertako partaide da / 11

Bultza zure etorkizuna izarretarantz

...eta bidali iezaguzu zure curriculumak, baldintzak betetzen badituzu Zientzia eta espazioa bezalako sektoreetan mundu mailako proiektuen buruan dagoen enpresa baten zati izan nahi duzu?

BULEGO KOMERTZIALERAKO INGENIARIA BILATZEN DUGU

Ingeniari Teknikoak edo Diseinu eta Fabrikazio Mekaniko Graduak bilatzen ditugu

ESKATZEN DUGUNA

- Ingeniari teknikoa/goi mailakoa eta/edo fabrikazio mekanikoko diseinuko goi mailako gradua
- Planoak interpretatzeko gaitasuna
- Solid Works, Excel eta Solidedge menperatzea
- Hizkuntzak, ingelesa (beste hizkuntza batzuk baloratuko dira; euskara, frantsesa, ingelesa, alemana)
- Taldean lan egiteko gaitasuna

EGINKIZUNAK

- Merkataritza-taldeko kideei laguntzea
- Eskaintzak baloratzeko piezkatzeak egitea
- Soldadura-kordioak kalkulatu
- Eskaintzak idaztea
- Eskaerak irekitzea, abiaraztea eta martxan jartzea
- Hornitzaileen kontsultak
- Eskaintza konplexuak gidatzea eta prestatzea, gauzatu arte

ESKAITZEN DUGUNA

- Etengabe hazten ari den Europako galdaragintza liderreko kide izatea
- Zientzia, espazio eta energia sektoreetan mundu mailako proiektu paregabeak garatzea
- Ordainsari eta baldintza erakargarriak
- Lan-giro ona
- Garapen profesionala

Curriculumak, espero zaitugu:

<http://cadinox.com/lana1/>

cadinox

Muruamendiaraz

Aukeran Dantza Konpainiako zuzendariari elkarrizketa / 2-3

Korrika Kulturala: kantu afaria, Aiurri eta Kantazaunen eskutik, ostiralean, Altuna sagardotegian / 14

Korrika Kulturala: "Ez gara jaitsiko" Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna Saroben / 5

Aitziber Ugartemendia andoaindarren omenezko ekitaldi gogoangarria egin zuten Basteron / 8-9

Imanol Ansa Kutxabank Masters Txapelketako irabazleari elkarrizketa / 12



Edu Muruamendiaraz Aukeran Dantza Konpainiako zuzendaria Sarobe Arte Eszenikoen Gunean. TTAP

“Garrantzi handiko gertaera izan da nire pasioa ogibide bilakatzea”

EDU MURUAMENDIARAZ AUKERAN DANTZA KONPAINIAKO ZUZENDARIA

Bergararrak ibilbide oparoa osatu du; ikuskizun ugari sustatu ditu eta dantzari askori lehen aukera eman die

Jon Ander Ubeda URNIETA

Aukeran konpainiako alma mater-a zaitugu. Baina joan gaitzen sorburura. 1994an, 1995ean eta 1996an Euskadiko txapeldun izan zinen aurrekuan eta dantza askatuan.

Gutxira, Aukeran konpainia sortu zenuen, zer eta berrikuntza uztartzeko. Zerk bultzatu zintuen bide berritzaileak aukeratzera?

Zuk aipatu bezala, hiru urtetan jarraian izan nintzen txapeldun,

eta goia jo nuela sentitu nuen. Nire asmoa dantzan jarraitzea zen, baina ez nekien oso ondo nondik nora jarraitu. Txapelketen bidetik jarraitzeko gogorik ez nuen, eta, 1997an, Eusko Jaur-

laritzak koreografo berriei zuzenduriko deialdia atera zuen eta konpainia sortzeko aukera sortu zen. Izena eman, eta laguntza txiki bat jaso genuen. Handik abiatu zen lehen koreografia, Aukeran izenekoa. Simple samarra zen, azken txapelketetan eskainitakoa eta Arratia aldean ikasitako dantza batzuk uztartuz. Jantziei eta musikari moldaketak egin genizkien, eta arrakasta izan zuen. Horrela ekin genion.

Gaur arte.

Gaur arte! Ez nuen uste hala izango zenik.

Bide berriak urratzea bada zure ibilbidean joera bat; hori izan daiteke bereziki harro egoteko motiboa?

Hainbeste urte igaro eta gero, zerbait berezia egin dugun seinale da hori. Bide berriak urratu genituen, eta niri aukera asko zabaldu zaizkit hainbat herri eta antzokitan aritzeko. Garrantzi handiko gertaera izan da nire pasioa ogibide bilakatzea. Oso pozik nago, bestalde, atzera begiratzen hasi eta konpainiatik zenbat dantzari igaro direla ikusita.

Gipuzkoako Dantza Profesionalen Elkartearen saria jaso zenuen, iaz;

protagonismo handia bereganatu zenuen egun haietan, eta beste elkarrizketa batean entzun dizut esaten nahiago zenukeela dantzak protagonismo handiagoa izatea urte osoan, eta Euskal Herri osoan. Pozik jaso nuen saria, baina hori ekitaldi puntuala da. Nazioarteko Dantzaren Egunaren bueltan izaten da, eta hilabete horretan ekitaldi ugari izaten da. Dantzak garrantzi handia hartzen du sasoi horretan, eta nik pentsatzen dut hori baino gehiago egin daitekeela. Hilabete harago doan jarduna delako. Urte osora zabaldu behar delakoan nago, dantza gure kulturaren altxor garrantzitsuenetakoa baita. Dantzarekiko giro hori urte osora zabaldu beharko litzatekeela uste dut.

Euskal dantza taldeak badira, ba-koitza bere ñabardurekin; zuk, ordea, uste duzu dantzak arreta eta garrantzi handiagoa merezi duela. Zertan ari gara huts egiten?

Ez dakit huts egiten ari garen, baina argi daukat dagoenari garrantzi handiagoa eman behar zaiola. Euskal kulturaren adar garrantzitsuenetakoa da dantza, belaunaldiz belaunaldi transmititu dena. Erakundeek apustu handiagoa egin beharko lukete, udaletatik hasita. Garrantzi handiagoa eman behar diogu. **Programazioaz ari zara?**

Bai. Ez baita nik nahiko nukeen bezain beste programatzen. Antzokiak badira, zirkuitua bada, baina ekarpen handiagoa egin behar da dantza konpainiak mantendu ahal izateko. Aukeran konpainiak eusten dio bere jardunari, baina hemengo dantzariak, horrela jarraituz gero, kanpora joan beharko dute, hemen ez zaielako behar duten guztia eskaintzen. Bertakoari eusteko lan handiagoa egin behar dela uste dut. Apustu handiagoa egitea nahiko nuke.

Bestalde, dantza saioetako ikusleak txunditzea lortzen duzue.

Lortu ditugu ikusleak; gure kasuan, behintzat. Ibilbide osoan, ikusleria propioa lortu du Aukeran konpainiak. Gure zigilua dugulako, akaso, ikusle berriak batuz goaz. Sortu ditudan ikuskizunak neure barrutik atera dira, baina ikusleak oso presente izan ditut beti. Zale propioak ditugu eta kopuru hori handituz doala ikusten ari gara.

Kale ikuskizunak, areto barrukoak... Aukeran, zein nahiago duzu zuk? Eta zure dantzariak zer diote?

Hasierako apustua areto barruko emanaldiak egitea izan da. Gauzak asko aldatu dira; bereziki, pandemiaren ostean. Antzokiko ikuskizunak prestatzen ditugu, baina geroz eta gehiago kaleko ikuskizunetara jotzen ari gara. Beste ikusleria bat da, eta horrelakoetan beste zentzu bat hartzen du ikuskizunak. Ni neu antzokietan dantzatzeko gustura nabil, baina belaunaldi berrien artean kalean egiten denarekin oso pozik antzematen ditut. Sentsazioak oso bestelakoak dira, eta, esan bezala, beste ikusle mota bat da saio horietan topatzen duguna.

Eta, gainera, ikuslea gainean duzue. Gustukoa bada, jendeak adi jarraitzen du. Hortxe dituzu, gainean. Kalean eta libre izatean, gogokoa ez bada alde egiteko aukera handiak ditu. Beraz, lortzen badugu jende guztiak arretaz jarraitzea, hori guretzat garaipen handia da.

Oso desberdina da kalean edo antzokian dantzan aritzea. Ohituta nengoen antzokietan dantza egiten, baina gauzak aldatuz doaz, eta hori seinale polita da. **Udazkenean, Argentinan eta Uruguain izan zarete; zuen dantza taldeko kideak elkarrizketatu genituen Aiurri astekarian, eta pozez zorratzen agertu ziren. Sekulako esperientzia izan zen haientzat, besteak beste, jasotako harrera beroagatik.**

Bizi behar den esperientzia da hori. Lehen aldiz 1995ean joan nintzen hara, Gozategi'z blai ikuskizunarekin, eta arrakasta polita lortu genuen. 2011n itzuli ginen, ordurako zuzendari lanetan Gernika ikuskizunarekin, eta bigarren hartan ere arrakasta handia lortu genuen. Nola bizi duten euskal dantza, euskal tradizioa, ikustekoa da. Itzela izan da udazken honetakoa. Hirugarren aldiz joan naiz eta dagoeneko hango hainbat eta hainbat lagun ezagutzen nituen. Pertsona haiek eta haien seme-alabek gure tradizioekiko pasio bera erakusten dute, eta arrakasta handiagoa izan da oraindik. Dantzarietat hunkigarria izan da, esaterako, Nekoetxean dantzan aritzea. Bizi beharreko esperientzia da, kontatu ahal izateko.

Energia berezia emango dizue horrek aurrera jarraitzeko.

Indar handia ematen digu, bai. Han izarren pare hartu gaituzte; gero, Euskal Herrira itzuli-



"Egape Dantza Taldean ikasitakoek badute irteera Aukeran konpainian. Pozgarria da hori. Oso harro nago, alde horretatik". TTAP

takoan, hori errotoik aldatzen da. Dantzariak gara, ez besterik. Ameriketara bizi izandakoa garrantzi handikoa izan da konpainiarentzat eta, bereziki, dantzari gazteentzat. Indar bizitzeko eta dantzan aurrera jarraitzeko garrantzi handiko esperientzia izan da.

Paris antzokiko emanaldia mugarriz izan zen zuentzat; kontu iezaguzuz gau magikoak eman zuena.

Xarma handiko antzokia da. Ehun urte ez baditu, hortxe-hortxe. Taula gaina txiki samarra da, baina mila ikuslerentzat egokituta dago. Giro itzela sortu zen, bizi beharrekoa. Emanaldia hasi orduko, jendetza zegoen.

Aretora iritsi ginenerako, soka luzea zegoen. Emanaldia ikusteko gogoz ziren dozenaka zale ziren. Ez gaude horretara ohituta. Hango ikusleek gure tradizioarekiko sentimendua bizibizi dute, eta hori azaltzen zizuten emanaldi osoan.

Tradizioa eta sorburua hainbeste maite dituzten lurralde haietan nola hartzen dituzte ikuskizun berritzaileak?

Oso ondo, egia esan. Sare sozialetan garaian bizi gara, eta jarraitpena egin dute. Gure berri ba-

dute. 1995ean, hara lehen aldiz joan nintzen, hango eta hemengo ikusleen artean aldea bazegoen. Egun, sare sozialetan garaian, hango eta hemengo ikusleek erreferentzia bertsuak dituzte.

Eskolak ere eman zenituzten, oker ez banago.

Eskola magistralak egin genituen. Nekoetxean dantza talde bat badute, haurrek eta helduek osaturikoa, eta antolatuta zuten ikastarora ehun eta berrogeita hamar lagun elkartu ziren. Harri eta zur geratu ginen. Ikasteko gogo bizia dute, hangoek. Bigarren eskola magistrala Buenos Airesen eskaini genuen eta han ere jende asko elkartu zen.

Maurizia eta Migratzaileak ikuskizunak taularatu zenituzten hango biran. Gure arbasoak migratzaileak dira han; beraz, ezin egokiagoa da ikuskizuna hara eramatea.

Ez nuen uste hainbeste euskaldun hara joan zenik. Guztiz aproposa zen ikuskizuna han eskaintzea. Askok eta askok hunkitu egin ziren, lotura agerikoa zelako. Pentsa, Migratzaileak ikuskizunerako, Migratango pieza sortu genuen. Euren omezez egindako koreografia da.

Zerbait berezia sentitu zenuen ikuskizunaren zuzendaria izanik?

Hainbeste kilometro daude euren eta gure artean... Ikusleen artean jende gazte ugari zegoen. Euskal Herria ez dute ezagutzen, baina aurrekoen aldetik transmisio lana egin da. Hori, nire ustez, gakoa da. Lortzen den konexioa hunkigarria da.

Hona etorrita, Sarobe Arte Eszenikoan egiten ari gara elkarrizketa. Aukeran dantza konpainian geroz eta pisu handiagoa hartzen ari da Urnietako Egape dantza taldeko harrobia. Ondo ezagutzen duzue prozesua, Egape ikastolako dantza irakaslea baitzara.

Orain dela hogeita zazpi urte hasi nintzen Egape ikastolan, dantza irakasle lanetan. 4 urterekin-edo hasi ziren lehen ikasle haiek. Nirekin hasitako haur haiek 18-19 urterekin dantzan jarraitzen dute. Gure moldera egokitu direla esango nuke, eta Egapen ikasitakoek badute irteera Aukeran konpainian. Pozgarria da hori. Oso harro nago, alde horretatik.

Urnietara zuzentzen garrantzi handikoa da, baina zeu ere Urnietarentzat garrantzitsua zara; zure lana nabarmendu izan dute: Urnietar Prestu izendapena jaso zenuen.

“DANTZARIEN JARDUNA OGIBIDE BILAKATZEA LITZATEKE HURRENGO ERRONKA”

Nire bigarren etxebizitza dela esango nuke. Urnietan oso pozik nago. Elkarrekiko zerbait berezia sortu da, haien eta nire artean. **Saroben duzue egoitza; hori garrantzi handikoa da konpainia batentzat.**

Erabatekoa. Eskerrak eman beharrean nago Urnietako Udalarari. Egoitza izatea, baliabide egokiekin, premiazkoa da konpainia batentzat. Entsealekua eta antzokia eskura ditugu. Behar genuen azpiegitura hori badugu. Profesionalizazioaren bidean urrats handia izan da. Dantzarietat gure jarduna ogibide bilakatzea litzateke hurrengo erronka.

Konpainiako buruak zenbaterainoko tartea eskaintzen die kideei sormena lantzeko, egitasmoak partekatzeko?

Nire kasuan, geroz eta gehiago. Ideia ugari dituzte, eta lanerako behar-beharrezkoak dira ideiak. Talde-lana da, gure ideia guztiak aintzat hartzen ditugu eta kanpoko koreografoen ekarpenak ere txertatzen ahalegintzen gara.

Bergaran sortu, Donostian bizi eta Urnietan lan egin; irudikatzen zenuen garapen hori gazte garaitan?


Ez nuen sekula garapen hori irudikatuko. 18 urterekin Bergara utzi eta Donostiara joan nintzen ikastera. Hango dantza eskolan sartu nintzen, eta bizitzak eraman nau dantzara. Urnietan dantza-irakaslea behar zutela-eta, ez nuen uste hainbeste urte hemen egingo nituenik. Hogeita dantzariekin hasi, eta, egun, berrehun izango ditugu. Non bukatuko dudan ez dakit, baina egindako ibilbidearekin oso pozik nago.

Bukatzeo, zertan emango duzue 2024a? Esku artean duzuen egitasmo berririk aurreraterik bai?

Migratzaileak ikuskizunarekin jarraituko dugu. Iaz Aiurri kale ikuskizunaren estreinaldia egin genuen, eta hori eskaintzen jarraituko dugu. Katalunian arrakasta handia izan zuen, eta lurralde hartan saio gehiago eskaintzea espero dugu. Udazkenearako erronka polit bezain ezberdina prestatu nahi dugu: Euskal Herriko ipuinak dantzan izena du ikuskizunak. Lehen aldiz, haurren munduan sartuko gara. Erronka handia da guretzat, eta buruan duguna gauzatzen bada oso ederra izango da. Buru-belarri gabiltza lanean.

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA

**GORA ETA BEHERA****"Su artean"**

Andoainen kulturartekotasuna sustatzen duen ekimena da "Su-artearen Gure-artearen" izenekoa. Urteko lehena Ontza elkartean, eta Peruko eta Senegaleko janaria dastatu dute dozenaka lagunek. Afrikako, Amerikako eta mundu zabaleko jatorria duten herrikideak elkartu dira Ontza elkartean, Ongi Etorri Eskolara ekimenak gidaturikoa.



AIURRI



AIURRI



AIURRI



Aldundiak egin zuen zubiaren irekiera-ekitaldia, astelehenean. ALDUNDIA

Prest da Allerruko biribilgune berria

Trafiko handiko bidegurutzea da Merca-Bugatti, Zubieta herria Eskusaitzeta, eta garraio-zentroak lotzen dituelako

Erredakzioa URNIETA

Lanak amaituta, egungo galiboa 5 metrokoa da, eta arazorik gabe ibil daitezke, jada, garraio bereziak eta ibilgailu handienak N-I errepideko puntu horretatik. Orotara, obrak 8.989.292,30 euroko aurrekontua izan du.

Eider Mendoza diputatu nagusiak N-I errepidearen lotune berriaren garrantzi kuantitatiboa eta kualitatiboa nabarmendu ditu, logistikaren gune neuralgikoa, baita lurralde mailan ere. Corten altzairuzko bi zubi berri dira, bertan ezarritakoak.

Abian da Errigoraren udaberriko kanpaina, "Eutsi gureari!"

Martxoaren 13ra bitarte egongo da aukera udaberriko kanpainaren eskaera egiteko, bai online, bai telefonoz

Erredakzioa ANDOAIN

Hamar urteko langa gaindituta, badator Errigoraren udaberriko kanpaina, "Eutsi gureari!". Hala, martxoaren 13ra bitarte, ekimenak eskaintzen dituen produktuen hautaketa egiteko aukera

izango dute interesa dutenek. Azken urteetako eskemari jarraiki, "urte guztirako eskaerak egitea" proposatzen du Errigorak. Hala, hiru berrikuntza nagusi ditu: ardo bereziak, ardo gorenak eta babarrun gorriak.

Aurten, webgunea izango da eskaerak jasotzeko bide nagusia. Hala ere, telefono bidez ere egin ahal izango dira eskaerak (+34 848 87 12 23). Apirilaren amaieran edo maiatzaren hasieran jasoko dituzte eskatzaileek produktuak bakoitzaren herrian, eskaera egitean aukeratutako gunean, zehaztutako egutegi eta ordutegian. Online eginez gero, bi zatitan ordaintzeko aukera izango da. Bestela, dena batera ordain daiteke, eskudirutan, produktuak jasotzerakoan.



Eskaerak Errigora.eus webgunearen bitartez egin daitezke. AIURRI

Ika-mika, Batzar Nagusietan


Batzar nagusietako Bide Azpiegituretako Batzordean izan ziren joan den asteko ostegunean Zabaletako bizilagunak, kamioien joan-etorriaren auzia azaltzeko xedearekin. Oiarbide jeltzalearen azken azalpenek Urnietako ordezkariak aztoratu zituen

Erredakzioa URNIETA

Gipuzkoako Batzar Nagusietara ailegatu da eztabaida, zehazki. Joan den asteko ostegunean, hilaren 22an, lurraldeko ordezkari politikoeekin egoteko aukera eduki zuten, EH Bilduren eskutik, Urnietako Zabaleta inguruko bizilagunak, bizi duten egoeraren berri emateko asmoz. Javier Barrientos izan zen herritarren bozeramale nagusi Bide Azpiegituretako Batzordean. Harekin batera izan ziren Jose Javier Matxain eta Carmen Alba. Horrela, urnietarraren hitzetatik entzun zituzten alderdi politikoei Zabaletako kamioien etengabeko joan-etorriak bertako bizilagunei eragiten dizkieten albo-kalteak. Datuen laguntzaz, argazki orokorra erakustez gain, irudiak eta bideoak ere eraman zituzten urnietarrek, azalpen argigarri gisa.

Belarriprest, bertan ziren, besteak beste, Alderdi Popularra, PSE-EE, EAJ-PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Gipuzkoa. Hori horrela, bertaratutako guztiek kezka erakutsi zuten aferaren gainean, irtenbidea lehenbailehen eman behar zaiolakoan.

Hitzordua hasi eta ordubetera, ostera, tentsioaren bidetik jo zuen bilerak, Aintzane Oiarbide jeltzaleak hitza hartu zuenean. Gaiaren gainean Zabaletako bizilagunak desinformatuta daudela iradoki zuen aurreko agintaldian Bide Azpiegituretako foru diputatua izandakoak: "Eguzkeraren haserre egon beharrean, 'noiz amaituko da hau?' esanez eta beste, irtenbide bat ikusi behar duzue, argia". Bide horretatik, Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuarekin bilera eskatzeko proposamena luzatu zion Oiarbide bizilaguntaldeari, zalantza guztiak argitzeko bide zuzenena dela iritzita: "Jakinarenean gainean jar zaitzate, gutxienez, informazio guztia izan dezazuen; izan ere, ikusten



Aintzane Oiarbide. BATZAR NAGUSIAK




Javier Barrientos. BATZAR NAGUSIAK

ari naiz, agian, egiazkoak ez diren suposizioak daudela tartean".

Horren aurrean, haserre azaldu ziren Urnietako bizilagunak. "Informazioa da eskatzen ari garena. Eta ez baldin badaukagu, ematen ez digutelako da", aitortu zuen Barrientosek, "lau hilabete daramatzagu Aldundiari eskutitzak bidaltzen azpiegituretako diputatuarekin bilera bat egiteko, eta orain esaten didazu elkarrizketa bat eskatzea dela irtenbidea?". Zur eta lur zegoela adierazi zuen bizilagunak, egoe-

ra onartezina azaldu bitartean: "Nik neuk, pertsonalki hiru aldiz eskatu dut bilera. Ezer, erantzunik ez. Hau da (Aldundiak bidali zien agiri bat erakutsiz) daukagun guztia. Hain justu ere, horregatik gaude hemen, ez dugulako txosten teknikorik ikusi, ezta baimenik ere".

Batzar Nagusietako hitzordua biharamunean, Aiurrik jakin duenez, Bide Azpiegituretako Departamentua Zabaletako auzotarrekin harremanetan jarri zen bilera bat egiteko asmoz.



2023ko abenduaren 24an aurkeztutako agiria, irudian. ZABALETAKO BIZILAGUNAK

Aldundian erregistraturiko eskaera

Aldundiko iturriek behin eta berriro diote urnietarrek ez dutela Gipuzkoako Foru Aldundian eskaerarik egin. Zabaleta auzokoek, Aiurri astekariak egindako eskaerari erantzunez, Aldundira igorritako agiri baten erregistroaren kopia erakutsi dute. Dena den, Aiurrik jakin duenez, bi aldeek bilera egingo dute laster.



Pailazo ezagunak Urnietan izango dira, hamabost egun barru. BASTERO

"Ez gara jaitsiko" pailazoen ikuskizuna, Korrikaren atarian

Martxoaren 15ean, ostiralarekin, saio bikoitza egingo dute Sarobe Arte Eszenikoen Gunean

Erredakzioa URNIETA

"Ez gara jaitsiko" ikuskizun berriarekin Urnietara itzuliko da Katxiporreta pailazoen konpainia. AEK euskaltegiak, Aiurri astekariak eta euskaltzaleen komunitateak antolatu du emaldia, eta sarrerak ostiraletik aurrera salgai ipiniko dira Urnietako BKN kafetegian (Sarobe ondoan), Andoaingo Ernaitza liburudendan eta Aiurriko egoitzan.

Pandemia iritsi arte, Porrotzek eta konpainiak Urnietan saioa eskaintzen zuten urtero. Eta, beti, Aiurriren eskutik. Oraingoan, berriz, Sarobe antzokian

ariko dira. Martxoaren 15ean izango da, ostiralarekin, eta bi saio egingo dituzte. Lehena, 17:00tan. Eta, bigarrena, 19:00tan.

Euskal Herriko konpainia ezagunena, beraz, iristear da. Zeri buruzkoa da ikuskizun berriena? Honatx aurrerapena: "Marimotots zuhaitz baten adaburura igo da, han goitik lurra hobeto ikusteko. Pirritzek eta Porrotzek atzetik jarraituko diote. Eta zuhaitzez zuhaitz eta adarrez adar, espero gabeko lekuetara helduko dira".

Familian ikusteko aukera paregabea. Ingurumenarekiko arreta areagotzeko aproposa.



MARTXOAK 19, ASTEARTEA

KM	Udalerrria	Tokia	Ordua
1342	Urnietara	GI-2132, 14b	21:38:37
1343	Urnietara	Oztaran	21:40:26
1344	Urnietara	Oztaran, 4	21:43:30
1345	Urnietara	Lizardi, 1	21:48:42
1346	Urnietara	Lasarterantz	21:52:10
1347	Urnietara	Elutxetako bidetunetik	21:54:46
1348	Lasarte-Oria	Kostegi	21:58:32

Korrika bi bider igaroko da Urnietan barrena. Lehen eguna iristear da. AIURRI



Nahia Valle, Imanol Iribarren, Peio Irigoien eta Harkaitz Bastarrika, Donostian egin zuten aurkezpenean. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

“Irigoienetik Plazara” disko bikoitza aurkeztu zuten, joan den ostiralean, Koldo Mitxelena Kulturuneak Donostiako Alde Zaharrean duen Santa Teresa Komentuko Ekitaldi Aretoan.

Bertan izan ziren Imanol Iribarren (pianoa, tronboia perkusioa eta ahotsa), Peio Irigoien (txistua, silbotea, tronpeteta eta ahotsa), Harkaitz Bastarrika (baxu elektrikoa eta ahotsa), eta Nahia Valle (ahotsa). Aurkezpenean, bi abestiren (“Izarren hautsa” eta “Ez da ez”) bertsioko akustikoak zuzenean interpretatu zituzten.

Nahiz eta diskoen grabazioan Nahia Valle abeslari hernaniarrrak ez duen parte hartu, hemendik aurrera bera izango da zuzeneko kontzertuetan ahotsa. “Diskoak era guztieta-ko abestiak dauzka, eta todoterreno bat behar dugu plazetan denak interpreta ditzan”, aitortu zuen Iribarrenek.

“Irigoienetik”, txistuaren hotsa

Euskal musika tradizionala erritmo latino eta jazz armonikoekin uztartu du Iribarrenek gidatzen duen taldeak hasieratik, eta, estilo horri jarraiki, oraingoan, bi disko ondu ditu.

Lehenbizikoak, “Irigoienetik” du izenburua, eta txistuaren hotsa du oinarrian. Iribarrenek disko horren sormen-prozesua izan zuen mintzagai, aurkezpenaren hasieran, eta hitz-jokoak erabili zituen horretarako: “Iri-

Abesti dantzagarriekin, disko bikoitza

Imanol Iribarren musika andoaindarrak eta Aldapeko Basque Latin Jazz taldeak disko bikoitza aurkeztu dute, “Irigoienetik Plazara”, plazetan jendea mugitzeko egokiak diren abesti dantzagarriekin

barrenetik hartu zuen izenburutzat gure lehenbiziko diskoak. Nire barrenetik irtendakoa izan zen; herrian sortua eta hirian landua, alegia. Euskal musika tradizionala eta erritmo latinoak uztartu genituen, haizezko instrumentuak eta erabiliz horretarako. Disko hartan txistuak ere hartu zuen parte, eta zuzeneko emanaldietan, gero eta garrantzi handiagoa hasi zen hartzen, Euskal Herriko txistularirik iaioenetakoa den Peio-rekin (Irigoi). Halako batean, Peio agindu nion txistuak hartuko zuela protagonismoa hurrengo diskoan, eta hementxe daukagu emaitza”.

Txistulari bakarlariaren abizenetik dator diskoaren izenburua, beraz.

Irigoienek berak egin zuen lehenbiziko disko horren deskripzioa, “jatorrizko euskal kantutegia eta txistua nahiz silbotea abiapuntutzat hartuta, gaur egungo erritmo eta armo-

nietara egokitzen saiatu gara, berritzailea izan da ahalegina”.

Hain zuzen, honako hauek dira erritmo bizietara moldatu dituzten euskal sustraiko doinuak: “Banakoa”, “Soka Dantza”, “Eperrak”, Malko Beltzak” eta “Ze politikak dira”.

Ahots ezagunez beteriko bigarren diskoa

Euskal musikaren panoraman aski ospea duten abeslariak parte hartu dute “Plazara” izenburuko bigarren diskoan. Honatx zeintzuk diren: Thierry Biscary (“Izarren hautsa”), Ines Osinaga (“Ez da ez”), Xabi Solano (“L’Estaca”), Ixiar Jauregi (“Lili eder bat”), Frank Delgado (“Nere etxea”), Harkaitz Bastarrika (“Triste bizi naiz eta”), eta, Asier Gozategi (“Baratzeko pikua”).

Hain zuzen, “Baratzeko pikua” abestiaren bideoklipa iazko abenduan zabaldu zuen taldeak, diskoaren aurrerapen gisa.

Iribarrenek adierazi zuenez, Aldapeko Basque Latin Jazz taldeak, sortu zenetik instrumentuak zutabe izan arren, aurrerapausotzat jo behar da disko horrek dakarren proposamena. “Instrumentuek garrantzia eduki dute beti, baina beti izan dugu gogoan ahotsa sartzea. Gure identitateari uko egin gabe, eboluzionatu egin dugula esango nuke”.

Hainbat abeslari diskora gerturatzea nahiko lan erraza gertatu zaiola, adierazi zuen Iribarrenek. “Instrumentu-jole gisa kolaboratu izan dut horiekin, eta, oraingoa, gurera etortzeko gonbidatuta, gogo biziz prestatu dira”.

Kubako erritmoen eragina

Iribarrenek aitortu zuenez, Donostian, Kubako erritmoek gero eta eragin handiagoa dute bere sormen prozesuan. “Iaz Kuban hilabete luzea igaro nuen, han- gero musikariek zer eta nola jotzen

zuten ikusten eta ikasten. Eta handik itzuli, eta inguruko musikariek agudo ohartarazi zidaten aldatuta itzuli nintzela eta nire musikan islatzen ari zela aldaketa hori”.

Musika dantzagarria, plazetarako

Batik bat, bigarren diskoa “oso dantzagarria” dela zehaztu zuen Iribarrenek aurkezpen-ekitaldian. “Antzokietan jo dugu gehienbat, orain arte. Baina jauzia eman nahi dugu aurrerantzean, Euskal Herriko plazak har ditzaten gure abestiek. Abesti dantzagarriak egin ditugu eta ziur gaude lortuko dugula dantzan jartzea udaberri eta udan plazara gu entzutera hurbiltzen diren musikazaleak”.

Oraindik orain, Kuban urtero ospatzen den Jazz Plaza festibal ospetsuan jo du Aldapeko Basque Latin Jazz taldeak. Han diskoa aurkeztu zuen zuzenean lehenbiziko aldiz, eta taldeko kideak oso asebeteta itzuli direla aitortu zuen Iribarrenek. “Nolabaiteko errezeloeekin joan ginen, ez ote ziguten harrera ona egingo, ez ote zen pretenziotsuegia izango gure asmoa, euskaldunak Kuban erritmo latinoak jotzen hastea, alegia. Ba egia esan, azkenean, oso pozik geratu ginen egindako txangoagatik!”.

Donostian egindako aurkezpena Anitz Musika Elkartek antolatu zuen. Gipuzkoako talde eta musikariei laguntza, sustapen, aholkularitza eta beharrezko kudeaketak errazteko 2005ean sortu zen elkarte da.

Hainbat bideo, ikusgai

Aiurriko web gunean, Donostiako aurkezpena bi bideotan ikus daiteke: batetik, aurkezpena, eta, bestetik, bertan “Izarren hautsa” eta “Ez da ez” abestiek egin zituzten bertsioko akustikoak. Bestalde, taldeak, iazko abenduan, diskoaren aurrerapen gisa zabaldu zuen “Baratzeko pikua” abestiaren bideoklipa ere ikus daiteke.

Eutsi gureari!



Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

otsailak 25 - martxoak 13



Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, arroza, pasta, kontserbak, lekaleak eta ardo loteak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.

errigora.eus



Pirritx, Porrotx eta Marimotots

EZ GARA JAITSIKO!

Martxoak 15, ostirala
Sarobe antzokia. URNIETA
 Bi saio: 17:00 / 19:00

8€ Sarrerak salgai:
BKN, Ernaitza, Aiarri



Alaitasun kantuekin eman zioten amaiera Aitziber Ugartemendiari esker ona adierazteko egin zioten ekitaldiari. **AIURRI**

Gogoangarria izan zen

Arrasto sakona utzi zuen Aitziber Ugartemendia Zubeldiak Andoainen, Lasarte-Orian eta Zubietan. Omenaldi-ekitaldi gogoangarria antolatu zuten haren lagunek, Bastero Kulturgunean. Lagunen eta herrikideen erantzuna berehalakoa izan zen

Xabier Lasa ANDOAIN

Eskuzabaltasuna, samurtasuna, bizi-grina, bizi-poza, ekintzailetasuna... Makina bat balio eta ezaugarri aipatuz definitu zuten Aitziber Ugartemendia Zubeldia bere senideek, adiskideek, eta hainbat herri elkartetako kideek, Basteron egin zioten gorazarre-ekitaldian, igandean.

Hitzartzeek, bertsoek, musikak, dantzak, bideo-muntaiek... osatu zuten abenduaren 16an hil zen kultur eragile nekazienaren aldeko omenaldiko ekitaldiaren zati handia. Era horretan, Bastero gainezka jarri duten senitartekoek, adiskideek eta lagunak, pantailan, Ugar-

mendiaren giza dohainak eta berearekin bizi izandako pasadizo ugari kontatzen dituzten testigantzak ikusi ahal izan zituzten, zuzeneko emanaldiekin tartekatuta.

Ainara Rodriguezek eta Maite Sagasetak aurkeztu zuten bi ordutik gorako iraupena izan zuen ekitaldia. Hasieran, senitartekoak oholtzara igo ziren,

OMENALDI EKITALDIAREN BIDEO-SORTA IKUSGAI DAGO AIURRI.EUS WEBGUNEAN

Aitziber Ugartemendiaren erretratua eskuetan zutela. Horrela, hainbat dantzarik hasierako agurra eskaini zieten, Eli Olaiola eta Esti Mujika abeslariak eta Aran Mujika gitarra-joleak interpretatu zuten Bi Katu (doina: Xabi Zabala; hitzak, Leire Bilbao) abestiarekin.

Rodriguez eta Sagaseta aurkezleek ere Ugartemendiaren ibilbide emankorra deskribatzen duen metaforaz beteriko hitzartzea egin zuten, mataza-haria eskuetan zutela, eta "Haria da Aitziber" ideia nagusi izanda.

Testigantza ugari, gizaki bihozbera eta ekintzaile baten berri emateko.



Unai anaiak eta Uxue ahizpak, mintzaldi bihozbera egin zuten. **AIURRI**

Antolakuntzako kide Ainarika Abregok atondu dituen bide-muntaietan, honako elkarte eta taldeek eman dute lekukotza: Zubietako lagunak, lagun koadrilla, Katxiporreta pailazoan konpainia, Punttuka Bertso Eskola, Kitto gazte Kolektiboa, Santa Krutz Jai Batzordea, Iñurri Elkarte eta Axeri Dantza Elkarte.

Hitz gozoak eta jakingarriak erabili zituzten Ugartemendia gizaki eta herri-eragile gisa deskribatzeko elkarte horietako kide guztiek ere. Beharbada, bere kuadrillako kideek hondartzan egindako pasarte sentikor bezain jostalari eta alaiak

eragin zituen malkorik gehienak Basteroko ikusleen artean.

Unai eta Uxue, Aitziberren anaiak eta ahizpak oholtza gainean egin zuten hitzartzea ere ez zen atzean geratu, emozio bizen kapituluan.

Ekitaldian barrena, aipatzekoa ere bada Iñurri elkarteko Ane Labakak, Maialen Akizuk eta Amaia Agirrek osatu zuten bertso saioa, Esti Mujika (pianoa) eta Aran Mujika (biolina) lagun zizutuztela.

Ugartemendiak parte hartu izandako hainbat elkarteetako ordezkariak merezi zuen eskertza adierazteko, eta urratu zuen biderei eutsiko diotela adieraz-



Ekitaldiaren hasieran, familiako kideei agurreko dantza egin zieten. AIURRI



Esti Mujika (ahotsa, silofonoa), Eli Olaizola (ahotsa) eta Aran Mujika (gitarra). AIURRI



Iñurrikide diren Ane Labaka, Maialen Akizu eta Amaia Agirre bertsolariak. AIURRI



Maite Sagaseta eta Ainara Rodriguez, aurkezleak. Atzean, herriko hainbat eragile. AIURRI



Jende andana igo zen oholtzara, Marimotots eta Porrotxekin batera. AIURRI



Bastero lepo jarri zuten ikusleek ere parte-hartze zuzena izan zuten. AIURRI

teko, sinbologiaz beteriko keinua egin zuten segidan. Hots, horietako bakoitza, eszenatokira igo zen, banan-banan, eta bere erretratuaren aurrean, jantziak, blusa gorria, irudi artistikodu-

neko kamisetak eta txapak edo pinak... hainbat objektu utzi zituzten; bien bitartean, Olagain Txistulari Elkarteko kideak festa giroko melodia jotzen aritu ziren.

Kantuan eta dantzan

Omenduaren lankide izan ziren Porrotx eta Marimotots pailazoek hartu zuten oholza ekitaldiaren amaiera aldera, eta Basteroko ikusleak eserlekuetatik altxa

arazi, eta kolore anitzeko puxiak eskuetan zituztela, dantzan eta kantuan jarri zituzten. Nola ez, alaitasuna nagusitu zen Basteron. Aitziberrek, ziurrenik, nahiko lukeen moduan.

Ekitaldia amaituta, zizka-mizkak eskaini zituzten erakusketa aretoan. Ondoren, Aitziberren senideak, lagunak eta lankideak elkarrekin bazkaltzen egon ziren. Egun gogoangarria izan zen.



Gorka Barreña "Jardala" eta Unai Iglesias "Panther", Andoaingo Nafarroa plazan. ©ARGINDAR

"Rap-a gure barrua hustutzeko modua da"

GORKA BARREÑA "JARDALA" ETA UNAI IGLESIAS "PANTHER" RAP MUSIKARIAK

Gaztetan murgildu ziren musika munduan, eta, egun, kontzertuak ematen hasi dira; hori nahikoa ez eta, bien artean, Northern Black Sheeps (NBS) bikotea osatu dute; Youtube kanala ere badute beren musika entzun ahal izateko

Mikel Arberas ANDOAIN

Jardala eta Panther raperoak zarete, baina elkartzean Northern Black Sheeps (NBS) bikotea osatzen duzue.

Unai Iglesias: Musikari independenteak gara eta bakoitzak bere estilo propioarekin rapeatzen du. Hala ere, talde gisa ere elkartzen gara, NBS izenarekin.

Gorka Barreña: Musika munduan modu independentean hasi ginen, baina, urteak aurrera joan ahala, bateratu egin ginen, NBS izenarekin. Egund, kantu bat edo beste eginda dugu biok batera.

Zer esan nahi du Northern Black Sheeps izenak?

U.I: Ardi beltzak esan nahi du. Artaldetik kanpo dagoen horri erreferentzia egiteko erabiltzen den esieran oinarrituta dago.

G.B: Ez du esanahi zehatz bat, baina aparteko zerbaite izango bagina bezala. Ardi beltza, zerbaite ezberdina, independentea. Azken finean, normaltasunetik irteten den horri ematen diogu kantxa, egun ezarria dagoen bide komertzialetik at.

Noiz hasi zineten rapeatzen?

U.I: Esango nuke, DBHko bigarren mailan hasi nintzela, gutxi gorabehera. Musika ekiporik gabe aritu ginen urtebetez eta, ondoren, bion artean mikrofonoa eta

beste horrenbeste erostea erabaki genuen. Ondoren, Gorkaren etxean grabatzeari ekin genion.

G.B: Ni hamalau urterekin hasi nintzen lehen kantuak eta letrak idazten.

Nola deskribatuko zenukete zuen rapeatzeko modua?

U.I: Zikina eta zakarra. Azken finean, gure barruak hustutzeko modua da eta, batzuetan, adierazteko modua bera bizipen horien ispilu dira. Garen bezala agertzen gara, bai oholtzan, bai letretan.

G.B: Apur bat azaltzearren, idazten hasten naizenean, barreneko zerbaite askatu behar dudalako

da. Barrenean gordeta dugun hori ateratzeko modua da. Letrak gure bizipenak dira; etxean, kaleran eta lagunekin, beste batzuen artean, sortzen direnak.

Guztia zuen kabuz egiten al duzue?

U.I: Ez dugu ahots berezirik, baina ez dugu autotunerik erabiltzen. Grabaketak eta edizioak gure kabuz egiten ditugu, inoren laguntzarik gabe.

G.B: Bai. Autodidaktak garelako esan genezake. Egiten dugun hori urtetan ikasi dugunaren emaitza da.

Zer da zuentzako rapa?

U.I: Espresatzeko modu bat da. Buruan bueltaka darabilzkizun

pentsamenduei letra eta ahotsa jartzea dela esan genezake.

G.B: Unaien dioen bezala, sentitzen duzun hori azaleratzeko modua da, eta baita nire buruarekin hobeto sentitzeko era ere. Zu zeu izateko tresna bat da.

Askok rapaa genero zakartzat eta gogortzat dute. Zer diozue?

U.I: Kantu oldarkorrenak eta zakarrenak ez dira hitz itsusiz osatzen, baizik eta sentimenduez, egoerez eta bizipenez; entzulea abeslariaren lekuan jartzeko balio dute kantuek, izan modu baikorrean edo negatiboan. Hala ere, batzuetan ez da batera erraza sorkuntza-lana, letren idazketarako bizipen horiek –sarritan txarrak– gogora ekarri behar direlako. Horrez gain, momentua deskribatzeko hitz egokiena bilatzen saiatzen gara, eta bizipen bat gogorra izanez gero, erabiliko dugun hitza, seguruenik, bortitza izango da.

G.B: Abestiaren arabera zakarra izan daiteke, noski. Nire kasuan, abesti gogorrak eta lasaiak ditut. Bizitzako momentuaren arabera gauza bat edo beste idatziko dut. Lehen esan bezala, barruak hustutzeko modua da rapa, beraz, egoera txar batean egonez gero, abestiak horixe bera islatuko du. **Etorkizunari begira zein aurreikuspen duzue?**

U.I: Kontzertu bat daukagu Alegen hilabete eta erdi barru. Rap gaua egin nahi zutela medio gurekin kontaktuan jarri ziren.

G.B: Agian, Donostiako Dabada kontzertu-gunean ere izango gara. Gutxinaka, mundu horretan murgiltzen ari gara. Espero dugu etorkizunean ere gauza gehiagotan parte hartzea eta gurekin harremanetan jartzea. **Youtube erakusleihu ona al da?**

G.B: Egia esan, bai. Andoaingo bi gazte izateko nahiko ikustaldi ditugu, baina urrutia iristeko aukera edukiko bagenu, askoz hobe.

Amaitu aurretik, nola aurreikusten duzue Andoaingo Gaztetxean egingo duzuen kontzertua?

U.I: Izugarria izango dela pentsatzen dut. Lehen aldiz, gaztetxean izan ginenean, ez zen jende asko bertaratu, 50 bat lagun, baina oso giro ona sortu zen, lagunartekoa eta gertukoa. Oroitzapen oso onak ditugu. Beraz, asteburukoa are hobea izatea espero dugu.

G.B: Gogo bizia dugu Gaztetxean abesteko, azken finean, etxean, gure herrian, taularatuko gara.



Matxeko sustatzaileak aurreko asteo aurkezpen-ekitaldian. MATX

‘Matx’: kirolarien, kirolzaleen eta klubuen aplikazioa

Hainbat hilabetez Instagram eta TikTok sareetan edukiak partekatzen ibili ostean, aurreko astean jendurrean aurkeztu zuen TOKIKOMEK Matx kirol-proiektua. Edukiez harago, gertuko kirolariak, kirolzaleak eta klubak batu nahi dituen egitasmoa da

Erredakzioa ANDOAIN

Guztiaren erdigunean APP aplikazio bat badago ere, Matx "hori baino askoz gehiago" izango dela aurreratu dute arduradunek. Proiektua hiru zutabe nagusitan banatuko da: klubak, kirol-edukiak eta komunitatea. Joane Korta, TOKIKOMeko proiektu-kudeatzailea, kirol-kluben garrantziaz mintzatu zen aurkezpen ekitaldian: "Gertuko klubak oso garrantzitsuak dira guretzat". Besteak beste, digitalizazioan eta komunikazioan lagunduko die Matx-ek klubei, taldeetako datu baseak osatu, antolatu eta elkarren artean mezuak modu seguruan trukatzeko aukera eskainiko baitie. Era berean, kirol-datutegi indartsua ere

izango da Matx. "Bakoitzaren interesen arabera emaitzak, partiden datak eta sailkapenak emango ditu une oro", gaineratu zuen Kortak.

Kirol-edukiak ere oso garrantzitsuak izango dira Matx-en. Gertuko kirolean gertatzen denaren berri emango du, ikuspegi fresko eta berritzailearekin. Eduki guztiak formatu bertikalean eta mugikorrean kontsumitzeko modukoak izango dira, eta albisteak, elkarrizketak, desfioak eta kirol-agenda kontsultatzeko aukera eskainiko die erabiltzaileei. Alde horretatik, hasieratik ikus-entzunezkoen aldeko apustu garbia egin dutela esan du Aratz Losadak, proiektuko eduki arduradunak: "Gazteak izan-

go dira gure xede-talde nagusia. Merkatua eta kontsumo ohiturak ondo aztertu ostean, garbi izan dugu eduki bertikal eta dinamikoaren aldeko apustua egin behar genuela". Horiek sortzeko, erredakzio propio bat osatu dute TOKIKOMeko Gipuzkoako hedabideekin. "Talde-lanean ari gara eduki propioak sortzen, eta, era berean, hedabide bakoitzeko kirol-edukiak ere jasoko ditugu Matx-en", gaineratu du Losadak. Tartean dago Aiurri.

Doako aplikazioa

Matx doako aplikazioa da. IOS eta Android plataformetan bilatu, deskargatu eta erregistratu besterik ez da egin behar erabiltzen hasteko.

Tokian tokiko kirol taldeekin batera



Ane Amondarain Euskaldunako ordezkaria aurkezpenen izan zen. MATX

Euskalduna, UKE, Leizaran, Ganbara Une honetan, MATX egitasmoari esker, Andoingo eta Urrietako eskubaloi, saskibaloi eta futbol taldeen emaitzak, sailkapenak eta ordutegiak eskura daude Aiurri.eus webgunean. Helburua, aipaturiko klubekin, MATXen bidez elkarlana areagotzea da.



Mikel Arberas, Aiurriko erredaktorea. MATX

Aiurri tartean da TOKIKOMeko Gipuzkoako hainbat hedabideren parte-hartzearekin abiatu da Matx. Tartean da Aiurri. "Talde-lanean ari gara eduki propioak sortzen, eta, era berean, hedabide bakoitzeko kirol-edukiak ere jasoko ditugu Matx-en", gaineratu zuen edukien arduradun Aratz Losadak.



Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak, aurkezpen-ekitaldian. MATX

Babes zabala TOKIKOM euskarazko hedabideen sareak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailak elkarlanean pentsatu eta landu dute egitasmoa, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Laboral Kutxaren eta Gipuzkoako futbol eta eskubaloi federazioen babesa izan du.



Azpirotz eta Ansa, podiumean. ORIAMENDI

“Txapelek errespetua ematen dizute; eta orojakileak urrundu”

IMANOL ANSA KUTXABANK MASTERS ERREMONTE TXAPELKETAKO IRABAZLEA
Bigarrenez irabazi du buruz burukoa, finalean Xabier Azpirotz menderatuta; egunerokoa ez omen zaio sobera aldatuko

Andoni Urbistondo URNIETA

Buruz buruko bi txapelek ez diote eguneroko lana libratzeko saririk ekarri urnietarrari. El-karrizketako galderak biharamun apur batekin erantzun ditu, igande arratsean.

Buruz buruko bigarren txapelak zer aldatu du zuzan, zerbait aldatu badu?

Ez du ezer aldatu. Lehen manonista irabazi nuenean sekulakoa izango zela pentsatu nuen, baina azkar jabetzen zara aldaketa ez dela hainbestekoa. Tira, izar galaktikoren bat baldin bazara, soldata eta famarekin ate joka badituzu, agian, baina nire kasuan bizitza betikoa da.

Onean ikasten duzu gauzei bere balioa ematen, erlatibizatzen; txapelduna zarenean ez zarela Jainkoa. Kontrako norabidean, galtzen duzunean ere mundua ez dela bukatzen jabetzen zara. Noski, irabazita poza eta motibazioa handiak dira hobetzen jarraitu eta garaipenak pilatzen saiatzeko, baina egunerokoa ez da sobera aldatzen.

Buruz buru jokatu dituzun azken hiru finalak irabazi dituzu. Zer esaten dizu horrek?

Objektiboa da jokaturako azken hiru finalak irabazi badituzu fuerte zaudela. Dena den, ez dut sentitu hori lortzeko gauza berezirik egin dudunik. Bakarra

akaso. Badakidala zer egin behar dudan finalera sasoi puntu onean iristeko. Esan nahi dut: badakit ez dudala parrandarik egin behar epe jakin bat geratzen denean. Edo ze prestakuntza mota egin behar den, arlo fisikoa estutu egin behar dudala... Eskarmentuak esaten dizu ze arlo indartu eta zein ez. Azpirotz-ekiko bentaja hori izan dut arlo horietan, berarentzat lehenengo finala izan delako. Nik ja badakit finalerako astea nolako den; material aukeraketa eguna, prentsaren eskaerak erantzun beharra... Etorkizunera begira egokitzapenak egin beharko ditut, ziur, baina orain urtetan ni

menderatu nauten erremontisten ezagutza lortzen ari naiz finalen atarian, eta horrek halako galoiak ematen dizkit.

Jendeak esango du: “Urriza eta Endika Barrenetxea gabe edozeinek”. Ze hausnarketa egiten duzu iritzi horren aurrean?

Elkarrizketa eskaintzen ari naiz Aiurri-ri, eta errespetuz mintzatu behar naiz galdera horri erantzuterakoan. Norbaitek taberna zuloan halakorik esango balit haizea hartzera bidaliko nuke, noski. Erreferentzia moduan izenak hartzen baditugu, finalak beti pertsona berberak irabaziko lituzke, jarduneko txapelduna beti izango delako faboritua. Kirola gutxiago ezagutzen dutenek izan dezakete akats hori, baina goi mailako kirolariak garenok ezin dugu akats horretan jausi. Goi mailako kirolean finalera iristen direnak dira onenak. Urrizak niri hainbestetan irabazten zidanean onena bera zelako zen. Orain finala nik eta Azpirotzek jokatu badugu, une honetan onenak biok garelako da; Urriza eta Barrenetxea baino gehiago izan garelako da. Urriza finalean ez badago arrazoi batengatik izango da, ezta? Akaso dagoeneko ez dagoelako bi urte atzera zegoen bezain indartsu. Bestela finalean egongo zen. Ni ere lesionatu izan naiz, eta inork ez zuen esaten ‘Ansa ez da finalera iritsi lesionatuta zegoelako’. Orain ere ezin da esan Urriza ez dela finalera iritsi lesionatuta dagoelako. Zein aritu dira indartsuen Masters honetan? Ba ni neu eta Azpirotz. Ez dago besterik. Urte politikak datoz erremon-tean, parekotasun handiko gara-riak. Urriza itzaltzen joango dira pixkanaka, eta Juanenea azaldu da, Azpirotz...

“Killer” bat zara. Aurkariaren ahulneren bat sumatzen duzunean txikitu egiten duzu.

Partida osoak egiten hasi naiz azken aldiak. Buruz buru, batez ere. Binaka ez hainbeste. Buruz buru zu bakarrik zaude 54 metroko kantxan, duda edo konfiantza sor dezakete zure erabakiek. Bikoteka zu eta zure bikotea dago. Ondo elkar ulertu behar dira, batez ere aurrelaria bazara, oso konpletoa izan behar duzulako. Binakakoan buruz buru erakusten dudana determinazio bera eduki nahi nuke. Baina ez naiz killer bat sentitzen. Niretzat killer-ak Javi Urriza eta Jokin Altuna dira, eta haien

mailara iristeko asko baino gehiago falta zait. Egia da Azpirotzen akatsak ondo baliatu nituela. Halako txakalaldi bat izan zuen, eta aurkaria bere onetik aterata ikusteak lagundu egiten zaitu buruko indarrean. **Gailurrera iristen ez zen, iritsiko ez zen promesa izan zarela irakurri eta entzun dugu han eta hemen urtetan. Soinu hori murriztuko al da hemendik aurrera?**

Aitortu izan dut, badela jendea pentsatzen duena beste inork baino gehiago dakiena. Kasu honetan erremonteari buruz ni baino gehiago dakiena, hala ez denean. Gero aholkuak emateko moduak eta moduak daude. Esan nahi dut, batzuk etortzen dira ‘Imanol, eta hau horrela edo horrela egingo ba hukek ez al huan hobea izango?’. Alegia, laguntzeko borondate argiarekin. Beste batzuk badaude, ordea, eta ez gutxi, arrazoi osoaren jabe balira bezala etortzen direnak: ‘Hi, Imanol, hau horrela eta horrela egin behar duk’, orojakile trazarekin. Nazkatu samar bukatu dut jende horrekin, eta txapelak irabazi ahala errespetua irabazten joan naiz. Dagoeneko ez zait hainbeste aditu gerturatzen, beraz hobeto.

Goi mailako kirolaria eta pertsonai publikoa zaren neurrian, gainera, erakustera etorri zain horri entzun egin behar, kargu hartu gabe.

Pentsa, eman izan dizkidaten zenbait aholku guztiz kontra-jarriak dira. Alegia, egin behar ez dena egiteko esan izan didate, eta horiek irentsi egin behar izan ditut. Ulertze aldera, nik ez diot esaten harakinari txekorria nola zatitu behar duen. Edo kamioi gidari bati trailerra nola aparkatu behar duen. Kirolariek, edo pertsonai publikoekin jendeak zernahi esateko eskubidea daukala uste du, baina eskubide hori hartzen duenak jakin beharko luke kirolariak aholkua ematen dion pertsonak baino askoz gehiago dakiela erremon-teaz. Lagungarria litzateke aholkuak eman zalea den pertsona horrek aholkuak iritzi moduan ematea, eta ez baieztapen edo ziurtasun erabatekoarekin.

"PARTIDA OSOAK EGITEN HASI NAIZ AZKEN ALDIAN. BURUZ BURU, BATEZ ERE"

Zer gertatu zitzaizun podiumera igotzerakoan?

Artaburu samarra izan nintzen, bai. Lehen koskara jauzi txiki batekin igo nahi izan nuen, eta jendea, txantxetan esan diot bigarren koskari diodala hartua neurria, baina lehenengoari oraindik ez.

Tokitxo egiten ari zara erremon-tearen olinpoan, pixkanaka. Zer pentsatzen du txapeldunak hor goien, ehunka lagun zuri begira eta txaloka?

Erremontean jolasean hasi zen Imanol Ansa gaztearekin gogoratu nintzen. Nola zeruratsen zituen garaiko erremontista onenak, txapeldunak, eta berarentzako ze inportantea zen finaletara iristea. Orain bigarren mailako kideak ikusten ditut: partida gutxi, lehen mailakoak ale batzuk baino ez... Borrokan segitzea aholkatuko nieke, dau den lauzpabostetatik bik utzi egingo dutelako, bat ez da iritsiko... Akaso pare batek bere tokia lortuko dute, eta ni neu egun jokatzeko ari naizen partidak jokatzeko lortuko dute. Ez akaso buruz buru, baina bai binaka, bikote onekin. Mezua garbia da: jarraitu lanean, bilatzen duenak ateak zabaltzea lortzen duelako. Dozena erdi urte atzera inork gutxik pentsatuko zuen ni neu, Juanenea, Ezkurra, Goikoetxea edo Azpirotz goren mailara iritsiko ginenik, baina iritsi gara. Bigarren mailakoei ere iritsiko zaie aukera, beraz segi dezatela borrokan.

"BIGARREN MAILAKOEI ERE IRITSIKO ZAIE AUKERA. SEGI DEZATELA BORROKAN"



UKE

Seniorrek galdu egin dute

Gizonezkoen senior taldeak gol bakarragatik galdu zuen Urolaren aurka (24-25); maila onean lehiatu ziren arren, azken momentuan ezin izan zuten garaipena eskuratu. Emakumezkoenak ere ezin izan zuten garaipena eskuratu (19-17), gutxigatik. Gizonezkoen jubenil taldeak, berriz, garaipen garrantzitsua eskuratu zuen (35-34, sailkapenean gora egiteko).



ANDOAINGO

Kaleberriko Klasikoa

Haur eta gaztetxoaren txirrindulari denboraldia, azken urteotan, Andoaindik abiatzen da. Hala, aurreko larunbatean, Kaleberrian gora eta behera egindako zirkuituan lehiaketako lehen kilometroak egin zituzten. Plaza atsegina, Kaleberrikoa, Andoaingo Txirrindulari Eskolak urtero-urtero mimo handiz prestatzen duena.



AIURRI

Liderarren bisitaldia

Leizaran Lanbroa taldeak Ameztai Zarautz taldea jasoko du, Allurralde kiroldegian. Euskadiko senior emakumezkoen txapelketa 1. mailako liga amaierara iristear da. Asteburukoa 18. partida izango da, azken aurrekoa beraz. Ameztaiok partida bakarra galdu du, eta horrexegatik dago lidergotzan. Leizaran bosgarren postuan sailkatuta dago, une honetan.



UKE

Aukera berria

Atzera kontaketa hasi da eta Urnietak mailari eusteko 10 partida ditu aurretik. Asteburuan, Touring taldearen bisitaldia izango dute urnietarrek. Garaipen bat gehiago dute, eta bi taldeen arteko aldea berdinketetan dago. Touring taldeak zortzi berdinketa lortu ditu, hogeitartidatan. Ez da partida erraza izango, baina halakoetan jokatzeko denboraldia.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 29

ANDOAIN Plenoa

Udalaren osoko ohiko batzarraldia.
19:00, Udaletxea.

ANDOAIN, URNIETA Errigora

Otsailaren 25etik martxoaren 13ra Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, arroza, pasta, kontserbak, lekaleak eta ardo loteak euskaraz etiketatuta eta jatorrizko prezioan erosteko aukera izango da.

Eskaerak: Errigora.eus gunea.

OSTIRALA 1

ANDOAIN Outlet kalean

Salkinek antolatuta.
Merkatal ordutegia.
17:30-19:30, Gora Kaletxiki.

ANDOAIN Antzerkia

"Bihar arte soilik". Harreman irekien eta sexualitatea ulertzeko era ezberdinen ingurukoa. Erre Produktzioak konpainiaren eskutik.
20:30, Bastero.

ANDOAIN Bus zerbitzua

Hiribus zerbitzuaren geldialdiak eta ibilbideak berriro dira. Hilerrirako zerbitzua egunero, hiru bider.
20:30, Bastero.

LARUNBATA 2

ANDOAIN Zuhaitz-landaketa

Eguzkiren eskutik, Muntto parajeon.
09:00, Otietako aparkalekua.



Xabier Salaberria eta Fermin Zinkunegi, Manttale taldeko kideak. AIURRI

URNIETA Kantu afaria Altuna sagardotegian

Korrika iristear da, eta Iñistorrak, Kantazaunek, Aiurrik eta AEK-k kantu afaria antolatuta Altuna sagardotegian. Kantu Liburuxkak eskura egongo dira, afalostean kantuan aritzeko.

Martxoak 1, ostirala. 20:00, Altuna sagardotegia

ANDOAIN Outlet kalean

Salkinek antolatuta.
Merkatal ordutegia.

URNIETA Ski irteera

Luz-Ardidenera, Zanpatuzekin.
05:45 Irteera: Matxo.
19:00 Itzulera.

ASTELEHENA 4

ANDOAIN Jabekuntza Eskola

Hamaika tailer eta lantegi. Izen-ematea martxoaren 4an abiatuko da, eta ikastaro bakoitza hasi baino zazpi egun lehenago itxiko da.
Izen-ematea: Berdintasun Saila.

OSTEGUNA 7

URNIETA Solasaldia


Urnietako Jabekuntza Eskola:
Literatur solasaldia.
16:00-18:00, Lekaio.

IGANDEA 10

ANDOAIN Kontukari ikuskizuna

Ma oso lanpetuta dabil eta amonaren etxean utzi du haurra. Nanuk, adi-adi entzungo ditu amonak zimurren artean ezkututzen dituen istorioak.
12:00/17:00, Bastero.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Politicamente incorrectos


Lar, 2. 19:30,
22:00.
Ig, 3. 19:30.
Astl, 4. 19:30.

Museoaren zaindariak

Lar, 2. 17:00.
Ig, 3. 17:00.

Sala de profesores

Lar, 9. 19:30,
22:00.
Ig, 10. 19:30.
Astl, 11. 19:30.



SINOPSISIA



Politicamente incorrectos

Zuzendaria: Arantxa Echevarria. Gidoia: Olatz Arroyo. Aktoreak: Adriana Torrebejano, Gonzalo de Castro, Elena Irureta, Maria Hervas, Raul Cimas,... Herrialdea: Espainia (2023). Hizkuntza: Euskara. Generoa: Komedia, politika. Iraupena: 110 min.

Zinemetan lehenik, telebistan gero

Espainia haserre bizian dago, herrialdea erabat polarizatuta dago eta sare sozialak egunero bor-bor... Ezker Berria eta Espainia Liberala alderdiak aurrez aurre izango dira datozen hauteskunde orokorretan. Laura, 'perroflauta' progre bat da eta

Pablo, fahalekodun pijoa. Lohian murgiltzeko prest daude beren buruzagien garaipena lortzeko. Baina ezer ez da espero bezala ateratzen. Aspaldiko gorrotoak, bete gabeko programak eta debekatutako maitasunak tartean sartuko dira.

Badon opera, Basteron, KORRIKA kulturalaren eskutik

KORRIKAK ematen duen bekarekin ondutako emanaldia da Badon. Hilaren 15ean Andoain taularatuko dute

Erredakzioa ANDOAIN

KORRIKA Irundik abiatu eta biharamunean, martxoaren 15ean, Badon opera multidiziplinarra taularatuko dute Bastero kultur-gunean, KORRIKA kulturalaren harira. Arratsaldeko 20:30ean

hasiko da emanaldia, eta 6 euroko kostua izango du sarrerak. Askotariko artistek parte hartu duten egitasmoa da Badon opera. Hala nola, Ainara Gurrutxaga, Oihana Vesga, Xanti Agirrezabala, Marina Suarez eta Ines

Osinaga igoko dira oholtza gainera. Egileen esanetan, nork bere burua "berpentsatzeko-berreraikitze" ariketa da Badon. Formatuari dagokionez, hainbat elementuk osatzen dute ikuskizuna, besteak beste: baliabide bisualek, zuzeneko musikak eta baita mugimenduak, literaturak eta bertsoek ere: "Badon opera posdramatikoa euskal kultura eta haren kanonak berrikustera dator. Jolasaren bitartez, etorkizun utopiko espekulatibo bat proposatzen du".



BADON opera garaikidea Andoainera iritsiko da. DONOSTIA KULTURA

M8 ANDOAIN

MARTXOAK 1

OSTIRALA

Erakusketa: "Salerosiak. Esklabotasunera bidaiak". Legez kanpoko merkataritzari eta pertsonen prostituzioari buruzko salaketa eta hausnarketa-lana da. Martxoak 1-Apirilak 20. Orduetgia: Asteleheneetik ostiralera: 18:00-20:00, Larunbata: 18:00-20:30. Bastero, erakusketa gela.

MARTXOAK 2

LARUNBATA

Irakurketa musikatua: "Konpasetan: Bidaia intimo bat emakumeen istorioetan". Testuak: Garazi Kamio. Musika: Susana Cencillo. 18:30, Bastero kulturunea.

MARTXOAK 6

ASTEAZKENA

Mural Margoketa. 17:30, Gazte Lokala.

Erakusketa parte-hartzailea. Zure inguruan zer? Nerabeek egunerokotasunean kontsumitzen dituzten baliabideen azterketa. 17:30, Gazte Lokala.

MARTXOAK 7

OSTEGUNA

Kulturarteko sukaldaritza lantegia. 17:30, Gazte Lokala.

Zinea-dokumentala: "Arnasa betean". Atzoko eta gaurko euskal zinemagileak protagonista. 19:00, Bastero kulturunea.

MARTXOAK 8

OSTIRALA

Txapa lantegia. 17:00, Ludoteka.

Autodefentsa ikastaroa. 17:30, Gazte Lokala.

Manifestazioa, Andoaingo Mugimendu Feministak antolatuta. 18:30, Goikoplazan hasita.

Kontzertua: Haize-arrosa Bizkaiko taldeak askotariko estiloak lantzen ditu: folk, pop, country... 20:30, Bastero kulturunea.

Emakumeen afaria: hartzaindegi zerbitzua eskaintzen da (aldez aurretik eskatuta). Aldez aurretik eman behar da izena: 676 567 724. berdintasuna@andoain.eus 20:30, Zumea plaza.

MARTXOAK 9

LARUNBATA

"Berdintasun Oihalak" martxa San Juan Bautista nagusien egoitzatik abiatuko da. 12:00, Martxaren hasiera. Ekitaldi nagusia, Bekoplazan.

Emakumeen bazkaria, Zuen emakumeen topalekuak antolatuta. Aldez aurretik eman behar da izena: 606 929 697. zuenamakumeentopalekua@hotmail.com. 14:30, Oianume jatetxea.

Buruntzaldeko Emakumeen IV. Pala Topaketa. Parte-hartze irekia. Materiala utziko da. 17:00-20:00, Arrate pilotalekua.

MARTXOAK 12

ASTEARTEA

Antzerkia: "El parto". 20:30, Bastero kulturunea.

MARTXOAK 14

OSTEGUNA

Jon Artano kazetariaren solasaldia: "Juanaren istorio harrigarria". Ekintzaile ekologista eta lider soziala. Kolonbiako narkoparamilitar talde batek erail zuen, 2020ko urrian. 18:30, Bastero kulturunea.

MARTXOAK 16

LARUNBATA

Dokumentala: Zuengatik gara topaketa. Andoaingo eskubaloiko jokalarri beteranoen bilkuraren dokumentala. 18:30, Bastero kulturunea.

M8 URNIETA



Udalak, ohar bidez, aurtengo programazioa zabaldu du. UDALA

MARTXOAK 4

OSTIRALA

Udal liburutegian liburu hautaketa berezia, hilabete osoan.

MARTXOAK 4

ASTELEHENA

Tailerra: emakumearen aldeko graffiti murala pallet-etan. 17:00-19:30, Gaztelekua.

MARTXOAK 5

ASTEARTEA

Mahai-jokoak: emakume erreferenteen nor da nor jolasa. 17:00-19:30, Gaztelekua.

MARTXOAK 6

ASTEAZKENA

Futbol txapelketa mixtoa. 17:00-20:00, Gaztelekua.

MARTXOAK 7

OSTEGUNA

Tailerra: Gaztelekuko leihoak emakumeen egunerako apaindu. 17:00-20:00, Gaztelekua.

MARTXOAK 8

OSTIRALA

Elkarretaratzea: Udal musika eskolako ikasleekin. 18:00, San Juan plaza.

Erakusketa: "Urnietako emakume margolariak". Maite Carrillo eta Anabel Atxaga. Orduetgia: Martxoak 11, 12, 14: 16:30-19:00; Martxoak 13, 15: 18:00-20:00. 19:00, Lekaio. Irekiera.

MARTXOAK 24

IGANDEA

"Yerma" antzezlanaren Gaztelera. 19:00, Sarobe.

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN
Añer
Joan zen otsailaren 26an 9 urte bete zenituen. Zorionak Aner! Muxu handiak ebteko guztien partetik.



ANDOAIN
Hegoa
Zorionak bihotza, 4 urte! Handitzen handitzen... asko maite zaitugu! Martxoaren 3an bikain ospatuko dugu. Muxu potoloak! Iker, Haitz, Amatxo eta Aitaxo.

Andoaingo herri barruko bus zerbitzu berria, martxan

Ibilbideak eta orduetgiak egokitu ditu Andoaingo Udalak, martxoaren 1etik aurrera indarrean

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo herri barruko bus zerbitzuaren hobekuntzak ostiralean jarriko dira martxan. Hasteko eta behin, bus berria izango da, handiagoa, zerbitzua eskaintzen ariko dena. Lehen egunetan, garai bateko busa ibiliko da, eta, laster, martxan jarriko da berriena. Horrez gain, geldiune berriak sortu dituzte eta horien irisgarritasuna bermatuta egongo dela ziurtatu dute. Berrikuntza nabarmenena hilerrira doan zerbitzua da, egunero hiru bidaia egingo baitira hara.

Berrikuntzak erabiltzaileen arabera moldagarri izan daitezkeela zehaztu du Udalak, prentsa ohar bidez: "Aldaketa hauekin guztiekin, erabiltzaileen beharretara egokitzea bilatu da. Herritarren nahiak kontuan izanda, eskaeraren arabera zerbitzu egoki bat bilatzen saiatu da Udala. Hori dela eta, eguneko orduetgietan azaltzen diren geldiuneak orientatiboak dira eta etorkizunean aldatzeko aukera egon daiteke herritarren nahien arabera".



"Outlet Kalean ekimenak aukera zabala eskainiko du"

MARIJO IRASTORZA SALKIN ELKARTEKO DINAMIZATZAILEA

Andoingo Salkin elkarteko hogeitendari "Outlet kalean" ekimenean parte hartuko dute, ostiralean eta larunbatean. Tokiko merkataritza sustatzeko baliagarria da

Erredakzioa ANDOAIN

Ostiralean eta larunbatean Outlet Kalean ekimena antolat du Salkinek. Zer nolako egoera bizi duzue?

Otsaila hilabete eskasa da, tris-tea, Gabonetako kanpaina amaitu berri. Salmenta aldetik, etenaldia eman ohi da, kasu gehienetan. Eta hilabete hasierako Outletak eroslea berriro erostera animatzeko aukera baliagarria izatea nahiko gure. Beherapenak izan dira tartean, bai. Martxoa ate joka dugu, eta eta salerosketa berrakibatze indartsu ekin nahi diogu. **Zenbater parte hartu, oraingoan?** Salkin elkarteko hogeitendari bat egingo dute ekimenarekin.



Agustin Leitza kalean dago Salkin elkartearen egoitza. AIURRI

Zein produktu eskainiko dituzten aurrezkerik bai?

Denetik aurkituko du erosleak, datozen bi egunotan. Outlet Kalean ekimenearen bidez arropa eskuratzeko aukera izango da, nola ez, aldaera guztietan: barruko arropa, kirol arropa, jantziak haur nahiz helduentzat,... Askotariko eskaintzak aurkituko ditu erosleak. Hala nola, kirolean aritzeko zapatillak edo ezkontza baterako trajea. Gauza gehiago izango da, optikan baturakoak, koloniak eta norbera edertzeko produktuak lurrintegian... Zartagiak ere prezio onean erosi ahal izango dira. **Aipatu duzu otsaila hilabete txarra dela, merkataritzaren ikuspegitik. Joera hori hautsi nahi duzue, beraz.** Halaxe da, bultzada bat eman nahi diogu salerosketari. Urta-ro aldaketa dator eta aukera polita da orain arte erosi ez duguna eskuratzeko. **Oro har, zein da egoera?**

Azaroa eta otsaila hilabete txarrak izan dira. Gertuko zerbitzua eskaintzen dugu eta horri heldu nahi diogu, tokian tokiko dendaria garrantzi handikoa baita.



Artxiboko irudia. AIURRI

Txaranga doinuak, ostiralean

Gora Kaletxiki Txaranga musikaz beteko ditu kaleak, ostiral arratsaldean. 17:30ean hasiko dira, 19:30ak arte. Bitartean, produktu ugari prezio onean erosteko aukera izango da Andoainean.



MARTXOAK 8 / EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

ZUETAZ HARRO

Ahalduntutako emakume bakoitzaren atzean ahalduntzera bultzatu duten beste emakume batzuk egon dira.

